

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Mugaketa espedientea, "Los Molinos" aurkintzan Guardiako Udalaren jabetzako Guardia-Lagran bide publikoa mugatzeko

Guardiako Udalak espediente administratiboa hasi du, "Los Molinos" aurkintzan dagoen Guardiako Udalaren jabetzako 002-13 kodedun Guardia-Lagran bide publikoa mugatzeko, ekialdean mugakide duen 22. poligonoko 1029 lurzatiarekin bat egiten duen gunean.

Mugarritu nahi den trazadura luzetarakoa da eta hegoaldeetik iparraldera doa, mendebaldeko muga osoan zehar (ezkerrean), 22 poligonoko 1029 lurzatiaren mendebaldeko mugarekin bat eginez (eskuinean), bertako behealdeko edo hegoaldeko erpinetik goiko edo iparraldeko mugaraino.

Erabaki da mugaketa egiteko eguna jartzea 2017ko urtarrilaren 24rako, eta interesdunei ekitaldi horretarako hitzordua ematea Guardiako udaletxean, Guardiako Plaza Nagusian, 09:30ean.

Iragarki honen bidez espedientea jendaurrean jartzen da, eta epe horretan espedientea interesdunen eskura egongo da Guardiako Udaleko (Araba) bulegoetan.

Halaber, iragarki honek ondoko hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, ondasun eta interesen titular ezezagunei, helbide ezezaguna dutenei eta kasuan kasuko jakinarazpena egiten saiatu arren gauzatu ezin izan zaienei.

Interesa duen edonori jakinarazten zaio bere eskubideak frogatu eta aldezteko egokitzat jotzen dituen alegazioak eta agiriak aurkez ditzakeela udal bulegoetan, neurtze lanak hasi baino hogeit egun lehenagora arteko epean. Epe hori igaro eta gero, ez da onartuko ez agiririk ez alegaziorik.

Egun horretan, aipatutako tokira joango da teknikaria, zeinak adierazitako tartean bide publikoaren mugak zehaztasunez ezarriko baititu, udal honetako ordezkari batekin eta idazkariarekin edo eskuordetuko duen funtzionarioarekin batera. Azken horiek dagokion akta egingo dute; bertan jasoko dira Ondasunen Arautegiak 64. artikuluan adierazitako erreferentzia guztiak eta bildutako guztiek sinatuko dute.

Gero, osoko bilkuran mugaketa ebazteko erabakia onartuko da, zeina betearazlea izango baita. Horren aurka egin daiteke administrazioarekiko auzien bidean.

Mugaketa onartzeko erabakia irmo egiten denean, mugarritze lanak hasiko dira, interesdunak tartean direla.

Guardia, 2016ko azaroaren 9a

Alkate-lehendakaria

J. PEDRO LEÓN GARCÍA DE OLANO